



**Mutrikuko Udala**

**“A” GUTUN-AZALAREN ESKAINTZEI BURUZKO TXOSTENA**

**KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA**

MUTRIKUKO MERKATU PLAZAKO POSTUEN ESLEIPENERAKO LEHIAKETA

1) KONTRATUAREN DATUAK:

- Objektua: Udalaren jabetzakoak diren Mutrikuko udal merkatuan kokatuta dauden eta jarraian zehazten diren 3 salmenta-postu finkoren erabilera pribatiboa ematea, prozedura irekiaren eta ohiko izapidetzearen bidez; erabilera udal-jabari publikoaren zati bat hartzean datza, Mutrikuko Merkatuaren ordenantzan jasota dauden jardueretan. Postuen ezaugarriak ondokoak dira:  
  
6. postua: azalera erabilgarria: 22,21 m<sup>2</sup>.  
5. postua: azalera erabilgarria: 22,47 m<sup>2</sup>.  
3. postua: azalera erabilgarria: 22,02 m<sup>2</sup>.
- Emakidaren epea: Jabari publikoko emakidaren iraupena 10 urtekoa izango da, emakidaren kontratua izenpetzen den unetik zenbatzen hasita. Alderdiek emakidaren iraunaldia amaitu baino lehen hala adostuta, iraunaldia 10 urte bete arte luzatu ahal izango da urtez urte.
- Eskaintzak aurkezteko epea: 2024ko abuztuaren 20a.
- Prozedimendua eta esleipen-modua: Prozedura irekiaren eta ohiko izapidetzearen bidez.

2) EDUKIA ETA ERABAKIA:

Kontratazio-arauetan eta administrazio-baldintza zehatzen agirian ezarritakoa betez, bilkuraren helburua “A” moduan izendaturiko gutun-azalen lehiatzaileek aurkeztutako proposamenetako dokumentuak kalifikatzea izango da.

a) Jasotako proposamen edo parte hartzeko eskabideak

Proposamenak edo parte hartzeko eskabideak aurkezteko epean, honako hauek jaso ziren:

1 zenb. ko proposamena. Erregistroko 1594 sarrera zenbakia. GOXART OBRADOREA SL

b) Lortutako emaitzak

Kartazalak irekita, horien edukia aztertuta eta ondokoa adierazten da:

- 1 zenb. ko proposamena. Erregistroko 1594 sarrera zenbakia: GOXART OBRADOREA SL Agiriak **ondo** aurkeztu ditu.

c) Erabakia

Aurrekoa kontuan harturik ondokoa erabakitzen da: 1. zenbakiko eskaintza bestelako ohartarazpenik gabe **ontzat** eman da.

Ondorioz, "B" gutun-azala **abuztuaren 26an** irekiko da, **goizeko 12etan**, Mutrikuko Udaletxeko batzar aretoan, **ekitaldi publikoan**.

Mutrikun, 2024ko abuztuaren 21ean

IDAZKARITZAKO TEKNIKARIA

Ane Arreitunandia Elordi